

ELKAR ENTZUTEAREN BIDEZKO BERREBALUATZEAREN NAZIOARTEKO ERKIDEGOAK

19370 Firlands Way North, Shoreline, Washington 98133-3925, USA
webgunea: www.rc.org • e-mail: ircc@rc.org • telefonoa: +1-206-284-0311

EBko irakasle berri maitea:

Ongi etorri EBko irakasleen taldera! Gutun honek deskribatzen ditu Uharte Arrazionaleko Argitaratzaileak eskuragarri dituen baliabideak. Irakasleentzat bereziki interesgarriak diren jarraibide batzuk ere laburbiltzen ditu. **EB Erkidegoetarako 2022ko Jarraibideen** bertsio osoa eskuragarri dago gure webgunean: www.rc.org/publication/guidelines/2022/contents. Laster egongo da eskuragarri inprimatutako bertsioa \$ 5 dolarren truke Uharte Arrazionaleko Argitaratzaileak-en: www.rationalisland.com.

EBko baliabide inprimatu gehienak eskuragarri daude ingelesez, batez ere; hori izan baita EB Erkidego gehienek erabili duten hizkuntza orain arte, eta ingelesa hitz egiten den herrialde batean hasi zelako EB. Baliabide horietako asko beste hizkuntza batzuetara itzultzen ari gara. Prozesu geldoa da, EBko kide boluntarioek itzultzen dute mundu osoko hainbat Erkidegotan, eta hizkuntza asko daude tartean. Hizkuntza jakin batean eskuragarri dagoena asko aldatzen da une honetan, EBn hizkuntza horretako jatorrizko zenbat hitzunek parte hartzen duten, horren arabera da, batez ere. Eskura dauden itzulpenen zerrenda *Present Time*-ko edozein zenbakiren kontrazalean edo hemen kontsulta daiteke: www.rc.org/translations. (hizkuntzen arabera antolatuta).

Espero dugu ingelesez irakurtzen dakiten EBko irakasle guztiek *A New Kind of Communicator* (Komunikatzaile mota berri bat) liburuxka irakurriko dutela, eta EBko aurrerapen berrien berri izango dutela *Present Time* irakurri. *Present Time* hiru hilean behin argitaratzen da, urtarrilean, apirilean, uztailan eta urrian. Hemen harpidetu zaitezke: www.rationalisland.com *Present Time* bilatuz bilaketa-barran.

Irakasleentzat beste baliabide garrantzitsu batzuk ditugu.

The *RC Teacher Update* (RCTU) Tim Jackinsen azken hitzaldietako audio-grabazioen sorta bat da. Lehen 61 grabazioak CDan daude (orain 73 grabazio ditugu eskuragarri). Grabazio horiek guztiak formatu digitalean edo CDan eska daitezke orain. Grabazio baterako doako esteka eskaintzen diegu lehen aldiz irakasteko ziurtagiriak jasotzen ari diren irakasleei edo grabazioak lehenago entzun ez dituztenei: <https://sharesync.serverdata.net/us4/s/4DEQVxMuozXLqaAZEZqXXu003ea588>. EB irakasleak animatzen ditugu audio-grabazio hauetara harpidetzera, urtean 4 aldiz ekoizten eta banatzen baitira, urtean \$20.00 USDren truke. Uharte Arrazionaleko Argitaratzaileak-i eska diezaiokezue:

- **Oinarrizko eskolak irakasteko gida, I. Zatia** (2022an berrikusia, aldian-aldian eguneratua). 31 ikasgairako eskemak ditu, eta irakasleentzako eta ikasleentzako irakurketak biltzen ditu. 15,00 USD. (PDF formatuan ere eskuragarri 7,50 USDren truke).
- **Oinarrizko eskolak irakasteko gida, II. Zatia – Askapena** (aldian-aldian eguneratua), gure askapenerako erakusleek idatzitako 41 eskema biltzen ditu, oinarrizko askapenerako teoria irakasteko, (PDF formatuan ere eskuragarri 7,50 USDren truke).
- “The *RC Teacher*”, 28, 29 eta 30 zenbakiek mundu osoko EB irakasleen esperientzia ugari biltzen dituzte. 28 eta 29 zenbakiek \$3 dolarren truke bakoitza. 30 zenbakia \$4.00 USDren truke.

- **CD: A Recent Introduction to RC** (CD 13) Tim Jackinsen audio-grabazio bat da, jendaurrean EBren sarrera bat ematen grabatutakoa Seattle-n, Washington, AEB. \$10.00 USDren truke (formatu digitalean ere eskuragarri \$6.00 dolarren truke).

Gainera, noizean behin *Present Time*-z bestelako EB argitalpen berrien paketeak bidaltzen zaizkie ingelesez hitz egiten duten EBko irakasleei (eta hala eskatzen duten beste batzuei), "**Teacher Packets**" izenekoak. Pakete horiek dira irakasle guztiek eta haien eskolek EB literatura berri guztia ezagutzen dutela ziurtatzeko asmatu dugun bitartekorik onena. Irakasleentzako paketeak modu irregularrean bidaltzen dira, gure produkzio-egutegiaren arabera. Prezioa 12 eta 35 dolar artekoa da eta garaiz ordaindu behar dira. **Teacher Packet** berriena bidali eta fakturatuko zaizu, aldeztatik uko egiten ez badiuzu. Paketearen kostua gehiegizkoa bada, irakasleak animatzen ditugu paketearen edukia ikasleei saltzera, irakurri ondoren. Elkar Entzutearen Bidezko Berrebaluatzearen argitalpenak irakurtzea eta ikasleei azaltzea funtsezko ezaugarria da EBko irakasle gisa betetzen duen funtzioan, nahiz eta literaturaren kudeaketa irakasle urgazlearen edo eskolako kide baten esku utz daitekeen.

Diru-faltagatik edo tokiko egoera ekonomikoagatik EBko literatura ordaintzeko zailtasun berezirik badago, jakinarazi, mesedez, irtenbide bat aurkitzeko.

EBko eskoletako irakasle guztiak libre dira beren eskoletarako dirusariak ezartzeko. Eskolako dirusariak ezartzean eskolagatik kobratuko dituzten dirusarien kalkuluan, irakasleek sartu behar dute diru-sarrera guztien % 25eko ordainketa bat, Guneko Hedapen-funtsari eta EBEBren Erkidegoko Zerbitzu-funtsari ordaindu beharrekoak. Ehuneko hogeita bost horren hiru hamarren (ehuneko berrogeita hamar online eskoletarako) Elkar Entzutearen Bidezko Berrebaluatzearen Erkidegoko Baliabideak S.A.k erabiliko ditu, Elkar Entzutearen Bidezko Berrebaluatze Erkidegoaren jarduerak zerbitzatzeko egiten duen lanean. Zazpi hamarrenak (ehuneko berrogeita hamar online eskoletarako) Guneko Hedapen-funtsera bideratzen dira, eta tokiko hedapenerako atera daitezke, Guneko Erreferentzia Pertsonak (GEP) (edo Garapen Bidean dagoen Erkidego batean izendatutako irakasleak) aldeztatik egindako eskaera onartu eta sinatu ondoren. Eskolen dirusariei buruzko xehetasunak *EB Erkidegoetarako 2022ko Jarraibideetan*, H.2, H.3. eta H.3.A jarraibideetan daude.

AEBtik kanpo ematen diren eskoletarako, Lurraldeko Erreferentzia Pertsonak (LEP) edo Guneko Erreferentzia Pertsonak (GEP) adieraz diezazuke nola ordaindu behar duzun Hedapen-funtserako ekarpena. AEBn ematen diren eskoletarako, % 25a EBEBra bidali behar da, 19370 Firlands Way North, Shoreline, WA, 98133 helbidera. Dagozkion formularioak eta finantza-gaiei buruzko informazio gehigarria zure GEParen edo LEParen bidez eskura ditzakezu, edo EB webgunetik jaitsi: www.rc.org (formularioak "Community" atalean daude: www.rc.org/forms).

Berriz ere, ongi etorri zure bokazio berri eta zirrarragarria!

Adeitasunez



Tim Jackins
Elkar Entzutearen Bidezko Berrebaluatze Erkidegoetako
Nazioarteko Erreferentzia Pertsona